

elkarberri

62

Colegio Oficial  
de Fisioterapeutas  
del País Vasco



Euskadiko  
Fisioterapeuten  
Elkargo Ofizia

# Fisioterapiaren Nazioarteko Eguna

Colegio Oficial  
de Fisioterapeutas  
del País Vasco



Euskadiko  
Fisioterapeuten  
Elkargo Ofizia

octubre - diciembre 2018 / Ejemplar gratuito  
2018ko urria - abendua / Doako alea

Depósito Legal: BI-945-05 - ISSN 2444-4065

# próximos cursos

## datozen ikastaroak

### Fisioterapia Vestibular

azaroaren 17 - Bilbao - 17 de noviembre



### Spine & Control: Abordaje Clínico del Dolor Lumbar

azaroaren 23 - Bilbao - 23 de noviembre

El COFPV se reserva el derecho de poder modificar el lugar de celebración del curso o alguna fecha, debido a necesidades de los docentes y razones ajenas a la organización.

Las plazas se otorgarán por riguroso orden de inscripción a los cursos, debiéndose hacer a través de la web colegial ([www.cofpv.org](http://www.cofpv.org))

EFEOk ikastaroaren lekua edo data aldatzeko eskubideari eusten dio, irakasleen beharizanak eta antolatzaileekin zerikusirik ez duten arrazoiak tarteko direla.

Ikastaroetako inskribapenaren ordenagatik bananduko dira plazak, webgunearen bidez egin beharrekoa ([www.cofpv.eus](http://www.cofpv.eus))



**June Ruiz**  
Vicepresidenta COFPV  
EFEO Presidenteordea

# editorial

## editoriala

### COFPV

Todos y todas conocemos ya a estas alturas las palabras que están detrás de nuestras siglas: Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco.

Pero hay muchos más mensajes ocultos que podemos encontrar tras ellas y que también pueden llegar a expresar mucho de nuestro día a día, de nuestra realidad, tanto como fisioterapeutas como Colegio.

Y me ha parecido bonito dedicar esta editorial a este pequeño "juego".

**COFPV**  
Cultivamos nuestro Oficio Formándonos y Perfeccionando Virtudes

**COFPV**  
Curiosos, Observadores, Firmes, Perfeccionistas, Valientes

**COFPV**  
Construimos con el Objetivo de Finalizar un Paradigma Vetusto

**COFPV**  
Contribuimos para Ofrecer un Futuro Próspero y Viable

**COFPV**  
Creamos Opiniones Férreas Persiguiendo la Verdad

**COFPV**  
Combatimos el Obscurantismo Formando Profesionales a la Vanguardia

**COFPV**  
Conscientes de la Obligación de Fomentar un Progreso Visible

**COFPV**  
Compaginamos Ocio, Familia, Pacientes, Vida

**COFPV**  
Calidad, Orgullo, Felicidad, Pasión y Vitalidad

**COFPV**  
C.... O.... F.... P.... V....

¿Se te ocurre a ti alguna?

### EFEO

Gaur egun, guztiok ezagutzen ditugu jada gure siglen atzean dauden hitzak: Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala.

Baina oraindik ere mezu gehiago daude hitz horietan ezkatututa, eta horiek ere asko esan dezakete gure eguneroko lanari buruz, bai fisioterapeuta gisa bai Elkargo gisa bizi dugun errealitateari buruz.

Eta polita iruditu zait editorial hau "jolas" txiki honetarako erabiltzea.

**EFEO**  
Eskuratzen dugu Formakuntza eta zorrozten ditugu bertuteak: hala, Elikatu egiten dugu geure Ofizioa.

**EFEO**  
Ekintzaileak, Fidelak, Eskuzabalak, Oldarkorrak

**EFEO**  
Eraiki egiten dugu, antzina Fabrikatutako paradigma bat Eraisteko hElburu Orokorrarekin

**EFEO**  
Etorkizun Faboragarri eta bideragarria Eskuratzea Orientatuta gaude.

**EFEO**  
Egiaren bidean iritzi Finkoak Eraikitzen ditugu guztion Onurarako

**EFEO**  
Egunean dugu beti Formakuntza eta horren bidez, aurre Egiten diogu Obskurantismoari

**EFEO**  
Ezagutzera eman daitekeen aurrerapena Finkatzeko gure Eskurako Obligazioaren jakitun gara.

**EFEO**  
Elkartasuna, Familia eta Energia dira gure Oinarriak.

**EFEO**  
Emaitzak, Fidagarritasuna, Esperientzia eta Oparotasuna

**EFEO**  
E... F... E... O...

Besteren bat bururatzen zaizu?

## sumario

## aurkibidea

2

**cursos**  
ikastaroak

3

**editorial**  
editoriala

4

**noticias**  
berriak

12

**artículo**  
artikuloa

20

**asesoría jurídica**  
aholkularitza juridikoa

22

**anuncios**  
iragarkiak

26

**colegiados**  
elkargokide

27

**última hora**  
asken ordua

**Presidencia y Dirección** Lehendakaritza eta Zuzendaritza  
Iban Arrien Celaya

**Coordinación** Koordinazioa:  
Comisión Comunicación, Publicidad y Protocolo

**Realización y Maquetación** Gauzatzea eta Maketazioa  
J&J Creativos

**Fotografía** Argazkigintza  
ORO

**Edita** Argitalpena

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

**Publicación trimestral** Hiruhilabeteko argitalpena  
3.000 ejemplares

Queda prohibida la reproducción parcial o total de los contenidos publicados en este ejemplar sin autorización expresa escrita de la Junta de Gobierno del COFPV.

Elkarberri y el COFPV no se hacen responsables del contenido e imágenes de los anuncios publicitarios, así como de los contenidos de los artículos publicados, ya que se corresponden con la opinión de sus autores.

Ale honetan argitaratutako edukien kopia osoa edo partziala egitea debekatuta dago, EFEO-ko Gobernu Batzordeko idatzizko berariazko baimena eduki gabe.

Elkarberria eta EFEOa ez dira iragarkien eduki eta irudien arduradunak egiten, ezta argitaratutako artikuluen edukiena, beraien egileen iritzia delako.

# Fisioterapia eta buruko osasuna

## Fisioterapiaren Nazioarteko Eguna ospatzea

Fisioterapiaren Nazioarteko Egunaren harira, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak berriro ere ikusgarritasuna eman nahi izan zion herritarren buruko osasunari eragiten dioten nahasmenduak tratatzeko ariketa terapeutikoaren efikazia eta eraginkortasuna frogatzen duen ebidentzia zientifikoari, bai depresioaren kasuan, bai elikadura-nahasmenduen, eskizofrenia eta bestelako psikosien, izaeraren nahasmenduen, demenzien, mendekotasunen eta antsietatearen kasuan.

Terapia horrek ibilbide luze eta arrakastatsua izan du Europako gure inguruko herrialdeetan, hala nola Frantzia, Belgika, Erresuma Batua, Danimarka, Norvegia, Holanda eta Suedian, baita Estatu Batuetan, Australian edo Kanadan ere; alabaina, buruko osasuna zaintzeko fisioterapia ez dago behar bezala ezarrita Espainian. Horregatik, EFEOk deia egin nahi izan du herritarren buruko osasunari eragiten dieten nahasmenduei erantzuteaz arduratzen diren diziplina anitzeko taldeetan fisioterapeutak txertatzeko,

farmakologia eta psikoterapiaren osagarri gisa.

Ebidentzia zientifikoak frogatu du fisioterapeuta batek agindutako eta berrikusitako ariketa fisikoa tresna terapeutiko bikaina dela osasun mentalari eragiten dioten nahasmenduetan ohikoak diren izaera psikosomatikoko nahasmenduei aurre egiteko; hala, nahasmendu horiek eragiten dituzten gorabehera fisiko eta fisiologikoak (insomnioa, goserik ez izatea, oxigenazio-arazoak, erlazionatutako arnasketa-arazoak direla eta, min kronikoa, giharren uzkurdura...) arintzeko. Horri esker, pazienteen gaitasunak eta haien bizi-kalitatea areagotu egiten dira. EFEOk hitzaldi bat antolatu zuen horri buruz, "Fisioterapia y Salud Mental" izenburupean, izen handiko fisioterapeuta den Maite Cenoz doktorearen eskutik (Espainia ordezkatzen du Buruko Osasunaren arloko Fisioterapeuten Nazioarteko Erakundearen eta Buruko Osasunaren arloko Fisioterapiaren Espainiako Elkartearen (AEF) kidea da).



Hauetako izan ziren hitzaldiaren helburuak:

- Fisioterapiaren arloa buruko osasunaren esparruan txertatzea.
- Esku-hartze klinikoa labur azaltzea, adibide kliniko batzuk erabilita.
- Kolektiboan interesa piztea.





Hitzaldian, Buruko Osasunaren arloko Fisioterapeuten Nazioarteko Erakundea (IOPTMH), Psikiatria eta Buruko Osasunaren arloko Fisioterapiaren

Nazioarteko Konferentziak (IC-PPMH) eta Buruko Osasunaren arloko Fisioterapiaren Espainiako Elkarte (AEF-SM) aurkeztu ziren. Horrez gain, fisioterapiaren arloko esku-hartze teknikarik berrienak labur azaldu ziren eta zenbait adibide kliniko eskaini ziren.

Hitzaldi parte-hartzailea izan zenez, landutako gaiei buruz eztabaidatzeko aukera egon zen.

Elkargoaren egoitza txiki gelditu zen, kolektiboak piztutako interes-maila handiaren eraginez; Elkarteko kideon ustez, hori benetan positiboa da.

Maite Cenoz doktoreari hitzaldia emateagatik eskerrak eman eta bere lana aitortu ondoren, egoitzaren hallean lunch txiki bat egon zen; bertan, parte-hartzaileek iritziak trukatzeko aukera izan zuten.

Gobernu Batzarreko kideok eskerrak eman nahi dizkiegu bertaratu ziren guztiei, Fisioterapiaren Nazioarteko Egunean parte hartzeagatik; espero dugu Elkargoak antolatzen dituen hurrengo ekintzek ere pareko arrakasta izango dutela.

Bukatzeo, eskerrak eman nahi dizkiogu Maite Cenoz doktoreari, ekitaldi honetan parte hartzeko eskuragarri egoteagatik; bera gabe ezinezkoa zitekeen ekitaldia antolatzea.

*Idazketa Kontseilua*

## Merkatuko Benda Neuromuskularrik Orekatuena

Aitex-ek egin dituen ikerketen arabera ez dago zito-toxikotasun arrastorik, ez-eta azaleko sumindurarik ere\*

TEMTEX® porositate handiko\* benda neuromuskularra da, azalak osasuntsu irauteko ezinbesteko ezaugarria

Elastikotasuna da TEMTEX® Kinesiology Tape-ren ezaugarri nagusietako bat, % 150-160 da



TEMTEX® lehen mailako osasun produktua gisa sailkatuta dago.

\* Aitex zuntz teknologikoen institutuak ziurtatutako datuak



# EFEOK Euskadiko Fisioterapia Sarien IV. edizioa antolatu du



Sariak abenduko Asanblada  
Orokorrean banatuko dira

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak Euskadiko Fisioterapia Sarien laugarren edizioa abiarazi du.

Sari horien helburua da Euskadin Fisioterapiak aurrera egin dezan lan egiten duten profesionalen lana aitortzea eta lan horri balioa ematea.

Aurtengo deialdiaren oinarriak aurreko hiru edizioetako bost kategoriei eusten die.

Hala, Euskadiko Fisioterapia Sarien IV. edizioak kategorია hauek izango ditu:

- Fisioterapeutarik onena
- Fisioterapiari buruzko proposamen-komunikatiborik onena
- Fisioterapiako ibilbide profesionalik onena
- Ikerketa-saria
- Karrera bukaerako lan onenari saria

Deialdi honen oinarriak Elkargoaren webgunean daude eskuragarri, eta banaka nahiz taldean parte har daiteke.

Sarien zenbatekoa berdin mantendu da; hau da:

- Fisioterapeutarik onena  
500 euroko prestakuntza-beka

- Fisioterapiari buruzko proposamen-komunikatiborik onena  
Garaikurra eta aitortza-diploma
- Fisioterapiako ibilbide profesionalik onena  
Garaikurra eta aitortza-diploma
- Ikerketa-saria  
1.000 euro eta 500 euroko prestakuntza-beka
- Karrera bukaerako lanik onena  
300 euroko prestakuntza beka

Lanak eta proposamenak aurkezteko azken eguna 2018ko azaroaren 23a izango da. Epe barruan aurkeztutzat joko dira aipatutako epe horren barruko posta-ziurtagiria duten lanak.

Epaimahaiak 2018ko abenduaren 10ean jakinaraziko ditu emaitzak, eta horiek 2018ko abenduaren 15ean argitaratuko dira, Ohiko Asanbladarekin batera.

Irabazleei aurretik jakinaraziko zaie, lanarekin batera entregatutako gutun-azal itxiko zerrendan ageri den lehen autoreari edo autoreari berariaz zuzenduriko gutun baten bidez.

Autore bakoitzak edo autore talde bakoitzak lan bakarria aurkeztu ahaldu du sarietara. Komunikazio-proposamenik onenaren sarian eta ikerketa-sarian, aurkezten diren lanak inoiz argitaratu gabeak izan beharko dira, eta ez dira onartuko bestelako saririk irabazi duten lanak. Horrez gain, modu anonimoan edo izenorde batekin aurkeztu beharko dira.

Interesdun guztiek hautagaiak proposatu ahaldu dituzte fisioterapeuta onenaren, fisioterapiako ibilbide profesionalik onenaren eta fisioterapiari buruzko komunikazio-proposamenik onenaren kategorietan. Neurri horren helburua da proposamen gehiago jasotzea eta Euskadiko fisioterapeuta guztiei sarietan parte hartzeko aukera ematea.

Proposamenak jaso ondoren, gehenez ere 7 kidek osatutako epaimahai profesional batek irabazleak hautatuko ditu.

Guztiok animatzen zaituztegu zuen hautagaitzak aurkeztera, fisioterapiaren arloko profesional askok egiten duten lan bikaina ezagutaraztea xede duten sari hauetara.

**Idazketa Kontseilua**



# Osakidetza

## Osakidetzako Erizaintza Zuzendaritzaordearekin bilera

Joan den irailaren 17an, Elkargoaren egoitzan lehen aldiz bildu zuren Elkargoko kideak eta Inmaculada Moro andrea, Erizaintzako zuzendariorde eta aholkularia, Osakidetzako Erizaintza Zuzendaritzaordearen ordezkari gisa.

Erakunde arteko harreman hauei ekiteagatik eskerrak eman ondoren eta Osakidetzako Erizaintza Zuzendariordearen norabide-aldaketa txalotu ondoren, Elkargoko ordezkariak fisioterapeutek euren jarduera kudeatzeko aspalditik dituzten kezken berri eman zioten, hala nola Fisioterapia Zuzendariorde izateko beharra, erizaintza alorreko paraleloan. Moro andreak adierazi zuen zuzendariorde B taldearen gerentziarekin identifikatzen dela, eta ez soilik erizaintzako kolektiboaren norabidearekin. Argumentu horrek eztabaida piztu zuen, fisioterapiak beste era batera ikusten dutelako, eta sentitzen dutelako bigarren maila batean daudela.

Moro andreak hala eskatuta, Elkargoko ordezkariak, kolektiboaren izenean, kezka nagusiak zerrendatu zituzten; hauek dira:

- Fisioterapeuta gutxiegi egotea (ez da betetzen OMEk gomendatzen duen ratioa, eskaintza publikoak prekarioak dira plaza kopuruari dagokionez -urtez urte eta behin eta berriro!-...).
- Kolektiboa eta fisioterapia bera Lehen Arretaren arloan txertatu beharra, gure ustez txertaketa hori garrantzitsua eta guztion interesekoa baita, eta onura ugari (arretaren arloan, ekoizpen-kostuen arloan...) ekarriko baititu.
- Bukatzeko, Osakidetzaren sarean zerbitzu ematen duen kolektiboaren gehiegizko mendetasuna eta autonomia profesionalaren falta, nahiz eta diziplinak garapen akademiko handia izan duen: mugak ebidentzia zientifikoa duten tresna terapeutikoak martxan jarri eta erabiltzeko, "basailutza" erako funtzionamendu-dinamikak berreste-medikuekin...

Kezka horien aurrean, Moro andreak interes handia agertu zuen garapen profesionala eta arreta hobetzea ekarriko duten proiektu komunak bilatzeari dagokionez, hala nola ebidentzian oinarritutako praktiken protokoloak/gidak egiteko lankidetzak, tailer teknikoak egitea, barne-prestakuntzako ekimenetan EFEOko kideek ere parte hartzea...

Elkargoko ordezkariak lekukoa jaso zuten, noski, eta erakunde arteko lankidetzak proposamena eskertu zuten.

Gobernu Batzarreko kideok espero dugu gai honetan ematen diren aurrerapausoen berri eman ahal izatea, gure kolektiborako interes handia duen gaia dela uste baitugu.

*Idazketa Kontseilua*



## Hainbat elkargo Arreta Goiztiarreko Profesionalen Elkartearekin elkartu dira

Joan den irailaren 27an, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren egoitzan, Filosofia, Letra eta Zientzietako Doktore eta Lizentziadunen Elkargoa, Bizkaiko Psikologoaren Elkargoa, Euskadiko Logopeden Elkargoa eta Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala Euskadiko Arreta Goiztiarreko Profesionalen Elkartearekin elkartu zuren. Biler horretan Euskadiko Arreta Goiztiarrari loturiko interes komuneko hainbat gai eta bakoitzak bere jarduketa-esparrutik Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Zentroetan lan egiten duten profesionalen rola eztabaidatu ziren.

Elkargoetako ordezkariak urte hauetan otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzkoaren, harira bizitakoaren laburpen bat aurkeztu zuten (bilera ofizialak, komunikatuak,

bilerak aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako arduradunekin...). Horrez gain, elkargo gisa horri dagokionez eman dezaketen ikuspegia eta bete dezaketen rola ere azaldu zuten.

Illo horretatik, elkargoetako ordezkariak une honetan gauzatzen ari diren ekintzak azaldu zituzten; ekintza horien xede nagusia da prestakuntza-eskaintza espezifiko bat bilatzea eta hori diseinatu eta garatzeko lankidetzan aritzea, Dekretuan eta araudi aplikagarrian jasotzen diren eskaera eta irizpideei erantzute aldera.

Hauk dira Elkartearen xede nagusiak:

- Arreta Goiztiarraren arloko arretaren kalitatea hobetzea.
- Gai honi buruzko azterketak eta ikerketak egitea, sustatzea eta ezagutaraztea (teknikari

eta profesionalen topaketak, tailerrak, prestakuntza, kongresuak, ikerketa sustatzea...).

- Arreta Goiztiarraren ikusgarritasuna hobetzea.
- Erakunde arteko lankidetzaren sustatzea, Arreta Goiztiarreko esku-hartzearen optimizatu ahal izateko.

Hori kontuan hartuta, erakunde guztien interes komunak gogoan, lankidetzaren akordio bat aktibatzeak aukera adostu da. Noizean behin horri buruzko informazioa ematen jarraituko dugu.

**Idazketa Kontseilua**





# Langile sanitario eta administratiboei zuzenduriko datuak babesteko dekalogoia

EFEOk Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren dekalogo bat helarazi nahi dizuegu; izan ere, fisioterapeutei eragiten die, osasun-langileak diren heinean. Gure ustez, dekalogoia oso argia da lanean erabiltzen ditugun datu pertsonalak seguru mantentzeko egin behar ditugun oinarrizko ekintzak azaltzerakoan.



1

*Tratatu pazienteen datuak zure datuak tratatzea nahiko zenukeen modu berean.*

2

*Ziur zaude historia kliniko hori eskuratu behar duzula? Hausnar ezazu. Lanerako behar baduzu soilik eskuratu beharko zenuke.*

3

*Gogoratu: dokumentazio klinikoa eskuratzen duzunean, hori erregistratuta gelditzen da sisteman. Zer informazio eta noiz eskuratu duzun jakin daiteke. Gero, atzitzeen ikuskapena egiten da.*

4

*Ez eman hirugarrenei zure pazienteen osasunari buruzko informaziorik, pazienteek horretarako baimena eman dutenean edo justifikazio zilegi bat duzunean izan ezik.*

5

*Bulegotik ateratzen zarenean, ziurtatu ordenagailuko saioa ixten duzula. Ez eman inori gakoa eta pasahitza; kontuan premiaz sartu behar bazara, jarri harremanetan informatika-sailarekin.*

6

*Ez bidali osasunari buruzko datuak dituen informaziorik mezu elektronikoz bidez, sare publiko bat erabiliz edo haririk gabeko komunikazio elektronikoen bitartez; hori egitea ezinbestekoa bada, ez ahaztu datuak zifratzea.*

7

*Ez bota datu pertsonalak dituzten dokumentuak paperontzira; suntsi itzazu zuk zeuk edo jarraitu zentroan ezarritako prozedurari.*

8

*Kontsulta bukatu ondoren, itxi giltzaz dokumentazio klinikoa duten armairu eta artxibategi guztiak.*

9

*Ez utzi historia klinikoak bistan zaintzarik gabe.*

10

*Ez sortu pazienteen datu pertsonalak gordetzeko zure fitxategien kontu bat; galdetu beti informatika-sailari.*

# EFEO Osasun Sailarekin bildu da



Joan den ostegunean, urriaren 11n, Osasun Sailaren Egoitza Nagusira (Vitoria-Gasteiz) joan ginen, eta bilera ofizial interesgarria izan genuen Jon Darpón Osasun sailburu jaunarekin, Nekane Murga Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendari nagusi andrearekin eta Iñaki Berraondo Osasun sailburuorde jaunarekin. EFEOn aldetik, Iban Arrien jauna (presidentea), Roberto Romero jauna (idazkaria) eta Severino Setien jauna (aholkulari juridikoa) joan ziren.

Bilera horretan, giro adiskidetsuan, interes komuneko hainbat gai landu zituzten. Hauek azpimarratu nahi ditugu: fisioterapeuten kolektiboa Osakidetzako Arreta Goiztiar sarean txertatzea, osasunaren arloko publizitatea kontrolatzea eta intrusismo profesionala, Osasunaren Euskal Kontseiluan ordezkari profesionala izateko eskaera, Sendagaien Legea, duela gutxi onartu den pazienteen segurtasunari buruzko dekretua, edo kolektiboaren zuzendariordeak Osakidetzan duen rola.

Azpimarratu beharra dago diziplina Osakidetzako Arreta Goiztiar sarean txertatzearen proiektio bikaina eta etorkizun ederra. Bere garaian egin zuten moduan, EFEOn ordezkari

dosier bat aurkeztu zuten, hainbat dokumenturekin, kolektiboa Arreta Goiztiararean txertatzeko eskaera historikoa babesteko eta argudioak emateko. Iraunkortasunari buruzko azterketak, jardunaldi monografikoen laburpena, beste lurralde batzuetako esperientziak, gaiari buruzko doktorego tesiak eta beste hainbeste dokumentu aurkeztu zituzten, hainbat hedabidetan argitaratu den hartutako konpromisoa defendatzeko. Horri dagokionez, Sailak emandako lehen urratsen laburpena azaldu zuen, eta azpimarratu zuen datorren hiru hilabetean Araban lehen esperientzia pilotua martxan jarriko dela. Lehen urrats horren helburua da jarraitzeko bide bat eskaini eta markatzea, fisioterapia Euskadiko Lehen Arreta ekipoetan modu integrarean txertatzeko proiektu handinahia erdiesteko urrats gisa, une honetan euskal sare publikoak eskaintzen ez dituen funtzionamendu-dinamika, bideratze eta jarduerak baliatuz Osasun Komunitarioaren arloan. Beraz, EFEOn oso pozik dago bilera horrekin, etorkizun hurbilean proiektu interesgarri bat dagoelako eta, azkenean, Elkargo honek behin eta berriz eskatu duen zerbaiti behar bezalako erantzuna eman zaiolako.

Horrez gain, fisioterapiaren arloko publizitate iruzurtiaren hainbat adibide

xeheetasun osoz azaltzeko aukera ere izan genuen; hala, Murga andrearen azalduetako kasuak berrikusteko konpromisoa hartu zuen. Gai hori aurretik ere landu zen Kontrol Batzordean, baina gure ustez hortik eratorritako erabakiak ez ziren nahikoa.

Pazienteen segurtasunari buruzko dekretu berriak guztion interesa piztu du. Arlo horretan eman ditugun urratsen berri eman ahal izan genuen, bai eta Elkargoko Segurtasun Batzordearen sorrera eta dagozkion plan eta gidak azaldu ere. EFEOn kideok proiektu orokor handinahiarekin bat egiten dugu eta horren inguruan benetako kultura bat sustatu nahi dugu; horretarako, Osakidetzako Zuzendaritzak martxan jarri duen on-line prestakuntza etengabea eskuratu ahal izatea eskatzen dugu. Hemendik, eskerrak eman nahi ditugu lankidetzaren proposamen hau onartzeagatik, gure apustuari emandako babesagatik eta proiektu globalarekiko dagoen konpromisoagatik.

Bukatzean, adierazi zen beharrezkoa dela Osakidetzako fisioterapeuten babesa izango duen zuzendaritzaorde bat izatea eta zuzendaritza horrek ordezkatzeko dituela sentitzea, erizaintzaren sektorearen norabidean polarizatutako politiketatik urrun.

Bilera atsegina eta positiboa izan zen, zalantzarik gabe, eta espero dugu elkarrekin lankidetzan aritzeko kontaktuak eta dinamikak eraikitzen jarraituko dugula.

**Idazketa Kontseilua**



# Pneumologoak eta fisioterapeutak Arnasketa Fisioterapiaren akreditazioa lortzeko elkartu dira

EFEOK arnasketa fisioterapiaren etorkizunerako oso garrantzitsua den albiste bat transkribatzen du jarraian.

SEPARek (Espainiako Pneumologia eta Kirurgia Torazikoko Sozietateak) hitzarmen bat sinatu du CGCFErekin (Espainiako Fisioterapeuten Elkargoen Kontseilu Nagusia), Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioaren uztailaren 10eko 639/2015 Errege Dekretuaren bidez arautzen diren Arnasketa Fisioterapiaren Akreditazio Diploma eta Akreditazio Aurreratuaren Diploma lortzeko kudeaketan eta sustapenean lankidetzan aritzea xede.

Zehazki, CGCFEK SEPARen Arnasketa Fisioterapia Arloari eskatu dio etorkizunean akreditazio-diploma hori eskatzen duten fisioterapeutek zer irizpide bete behar dituzten zehazteko. Arlo horren burua Antonio Ríos da, Santa Luzia Unibertsitate Ospitale Nagusiko (Cartagena, Murtzia) fisioterapeuta. Hori izango litzateke CGCFEK lortu nahi lukeen lehen akreditazio-diploma. SEPAReko Arnasketa Fisioterapia

Arloak Espainiako arreta-arlo horretako profesional gehien biltzen ditu, eta xede horretarako lan-talde bat osatu du. Lantalde horrek, CGCFErekin elkarlanean, eskatu beharreko baldintzak aztertu eta garatuko ditu, gerora Administrazioak aintzat har ditzan diploma horiek arautzen dituen Errege Dekretua egiten duenean.

## Berme gehiago segurtasunaren arloan

SEPARen ustez, era horretako diplomak sortuz, pazienteei arreta ematean eskaintzen diren segurtasun-bermeak areagotuko dira, Errege Dekretuak aurreikusten duen moduan; izan ere, arlo espezifiko batean, kasu honetan, Arnasketa Fisioterapiaren arloan, garapen profesionalaren maila bat erdietsi dutela bermatzen duen akreditazioa duten profesionalak emango dute arreta hori.

Hau dio Antonio Ríosek: “arnasketa-fisioterapia erabiliz, ospitaleko gaixoak azkarrago sendatzen dira, eta gaixo kronikoen sintomak hobeto kontrolatu ahal dira”. Eta hau ere gehitzen du:

“Arnasketa Fisioterapia teknikak jasotzen dituzten pazienteek bizikaltate hobea dute; izan ere, frogatu da diziplina hori baliagarria dela zenbait arnasketa-patologiko kronikok ezinbestean dakarten hondatze progresiboa moteltzeko”.

Sinatze-ekitaldian izan dira, halaber, Miguel Villafaina Espainiako Fisioterapeuten Elkargoen Kontseilu Nagusiko presidentea, Carlos A. Jiménez-Ruiz SEPAReko presidentea eta Germán Peces-Barba Separreko presidenteorde eta pneumologoa.

**Albiste joan den urriaren 2an argitaratu zen hainbat komunikabidetan**




# Ornoarteko diskoa

Juan M<sup>a</sup> Morales Aizpun - 562. elkargo-kidea COFPV  
 Goretti Aranburu Guenaga - 15. elkargo-kidea COFPV

## Sarrera


Irudi bidezko diagnostikoetan, sendagaietan, ebakuntzetan eta abarretan inbertsio handia egin bada ere, arazo muskuloeskeletikoek gora egiten jarraitzen dute. Estatu Batuetako ikerketa baten arabera, gerrialdeko minak herritarren % 85i baino gehiagori eragiten die, eta horrek urtean 100 mila milioi dolarreko kostua dakarrela jotzen da. Se cree que factores como la obesidad y el sedentarismo tienen que ver con este incremento.

Gerrialdeko minen % 1 bakarrik eragiten dute tumoreek edo hausturek. Minen % 5ek bakarrik dute zerikusia protusioekin, diskoko herniekin edo zapal dutako nerbioekin. Minen % 5 hori lokalizatzeko irudi bidezko diagnostikoekin arazo bat sortu dugu (erresonantzia magnetikoak, adibidez): protusioak, herniak, diskoko endekatzeak, fazetariak eta abar ageri dira, baina horiek EZ dute zerikusirik pazienteen gainerako % 95ak duen egoera klinikoarekin; izan ere, horrelakoak sintomarik ez duten pazienteetan ere aurkitzen dira.



**Table 2: Age-specific prevalence estimates of degenerative spine imaging findings in asymptomatic patients<sup>a</sup>**

Imaging Finding	Age (yr)						
	20	30	40	50	60	70	80
Disk degeneration	37%	52%	68%	80%	88%	93%	96%
Disk signal loss	17%	33%	54%	73%	86%	94%	97%
Disk height loss	24%	34%	45%	56%	67%	76%	84%
Disk bulge	30%	40%	50%	60%	69%	77%	84%
Disk protrusion	29%	31%	33%	36%	38%	40%	43%
Annular fissure	19%	20%	22%	23%	25%	27%	29%
Facet degeneration	4%	9%	18%	32%	50%	69%	83%
Spondylolisthesis	3%	5%	8%	14%	23%	35%	50%



Hori dela eta, paziente ugari gerrialdean mina dute eta erresonantzia magnetikoa egin ondoren hernia/protusio bat dutela esaten diete, inolako beharrik gabe beldurtzen dituzte; izan ere, paziente horien sintomak EZ datoz bat erresonantzian ageri den irudi "anormalarekin".

Fisioterapeutak egin behar duen lehen gauza hasierako screeninga egitea da, paziente medikuarenera bidaltzea beharrezko egiten duen patologia larririk ez dagoela ziurtatzeko. Bigarrenik, gerrialdean mina duen pazienteak nondik hitz egiten ari den jakin behar dugu. Baliteke tumore bat izateko beldur



handia edukitzea, edo erresonantzia magnetikoaren emaitzek izutu izana. Pazienteak nondik hitz egiten duen badakigunean, mina zerk eragiten duen argitu ahalko dugu.

Lesionatzen garenean, sendatzeko epeak errespetatu behar ditugu baina, gero, berriro mugitzeko prest egongo gara. Ornoarteko diskoak astiro sendatzen dira, baina sendatu egiten dira. Tratamendu egokiarekin eta sendatzeko epeak errespetatuz gero, mugimendua da pazienteak bere onera itzultzeko aliatu handiena.

Mina biologikoki lotuta dago beldurrarekin edota haserrearekin. Gerrialdeko mina izan ondoren, batzuetan, mugitzen ez diguna ez da mina, baizik eta mina izateko beldurra bera. Bizkarrezurra edo diskoak ahulak eta hauskorrak direla pentsatzeari utzi behar diogu: mina EZ da ehunetan izandako kaltearekiko proportzionala, mugimenduak on egiten dio gorputzari, bizkarra mugitzeko diseinatuta dago. Fisioterapeutok bizkarrean konfiantza berreskura dezaten lagundu behar diegu pazienteei, baita minarekin duten harremana aldarazi ere. Eskuzko terapian eta ariketetan izandako progresioaren bidez, pazienteak segurtasuna berreskuratzen du, nola sendatzen den ikusten eta sentitzen duelako.

Bibliografia ugaritan azaltzen da diskoko herniak bere kasa desagertu edo gutxitu

direla, inolako tratamendu kirurgikorik gabe. Argazki honetan, gerrialdeko diskoko hernia baten bilakaera naturala ikus daiteke, onera eginez, urtebeteko tartean.

Mike Stewart fisioterapeuta da ("Know Pain. Empowering Function through Education"). Hainbat baliabide terapeutiko ditu, besteak beste pazienteak sentitzen duen mina gorabehera kontrola berreskuratzeko gida bat eta metaforak erabiltzea kontzeptu zientifiko abstraktuak pazientearen errealitatera ekartzeko. Metaforei esker, mina hobeto ulertzen da, eta kontzeptua berriz eraikitzen da; hala ere, fisioterapeutaren erronka handiena metafora horiek paziente bakoitzari egokitzean datza.

Hona hemen gehien gustatu zaigun Mike Stewarten metaforetako bat: "Antzina, uste zen sumendien barruan haserretzeko eta sua botatzeko joera zuen jainko bat bizi zela. Haserretu ez zedin, sakrifizioak egiten zituzten haren omenez. Batzuetan, halaxe jokatzeko jarraitzen dugu hernien kasuan (kasu honetan). "Diskoko herniaren jainkoa" haserretu ez dadin gure bizitzako alderdiak, mugimenduak, zaletasunak eta abar sakrifikatzen ditugu; alabaina, zientziaren aldetik, sakrifizio horiek sumendiko jainkoari egiten zizkietenak bezain zentzugabeak dira".

Sendatzeko epeak errespetatu ondoren, hobeto sentitu arte ez mugitzea ez da ideia ona; izan ere, denborarekin forma fisikoa galtzen da, eta mina nagusitzen.

## Sakon

Denbora luzea da osasunaren arloko profesionalak badakitela gerrialdeko minari aurre egiteko fisioterapia neuromuskuloesketikoak duen garrantzia.

Diskoko hernien kasuan, tratamendu kontserbadorea da lehenik eta behin aukeratzeko dena. Diskoko hernien kasuan tratamendu kirurgikoa eta kontserbadorea aldatzen dituzten ikerketetan, ikus daiteke estatistikei dagokienez kirurgiaren eta tratamendu kontserbadorearen emaitzak antzekoak direla urtebete edo bi urte igaro ondoren. Gainera, hamar urtez jarraitu zaie kirurgia jaso zuten zenbait pazienteri eta tratamendu kontserbadorea jaso zuten beste batzuei; bi talde horien arteko desberdintasunak ez dira adierazgarriak estatistikoki. Horrek guztiak adierazten digu gerrialdean hernia edo protusio bat duten pazientei tratamendu kontserbadorea emateko aukera kontuan hartu beharrekola dela, baita lesioa jasan duen diskoak eragindako konpresio erradikular batetik eratorritako lesio neurologikoa egon bada ere: gerrialdea da era horretako konplikazioek bilakaerarik onena duten gorputzeko



atala Adibidez, Holandan, pazienteen % 49ri zuzenean agintzen zaio fisioterapia egiteko; AEBetan, berriz, zifra hori % 60 izatera iritsi daiteke.

Beste ezer egin aurretik, anamnesian screeninga egiten da, patologia larririk (red flags) ez dagoela ziurtatzeko. Mediku baten balorazio sakonagoa behar duten pazienteak bideratu egingo dira: erradikulopatiak, tumoreak egotearen susmoa, arazo baskularrak edo jatorria dela eta psikologiari lotuago dagoen tratamendu bat behar duten nahasmenduak, besteak beste. Zaldibuztanaren sindromea duten pazienteei premia egin behar zaie erresonantzia magnetikoa, nahitaez; izan ere, 72 orduz baino gehiagoz mantentzen bada, gabezia neurologikoak izateko arriskua nabarmen areagotuko da.

Patologia larririk ez badu, pazienteak tratamendu fisioterapeutikoa jaso ahalko du. Zaila izan daiteke, baina diagnostiko goiztiarra ezinbestekoa da era honetako patologietan; izan ere, hala egiten ez bada, pazienteak mina izaten jarraituko du, eta kostuak areagotuko dira, kontsulta eta sendagai gehiago beharko dituelako.


Gerrialdeko minaren % 80ren jatorria mekaniko sinplea da; gerrialdeko min zehaztugabe izenez ere ezagutzen da. Mediku gehienek gerrialdeko min zehaztugabeari etiketak jartzen dizkio, kategoria patoanatomikoak iradokitzen (Kent and Keating 2005): giltzadura zigoapofisarioak, fazetak, diskoak, egonkortasunik eza, giltzadura sakroiliakoa (ASI). Irudi bidezko diagnostikoaz gain, interpretazio klinikoak ere pentsaraz diezaguke pazientearen sintomek zerikusia dutela jatorria diskoetan duen nahasmendu batekin. Diskoko hernia diagnostikatzeko azterketa klinikoaren zehaztasuna % 90ekoa da, eta positibo faltsuak % 10 baino ez dira (Knutson, 1961). Jatorria diskoetan duen gerrialdeko mina duen paziente baten aurrean gaudela jakitea lagungarria da tratamendurako eta pronostikorako. Jatorria diskoetan duen gerrialdeko mina gerrialdeko min kronikorik ohikoena da, kasu guztien % 39 baita; horri diskoko herniek eragindakoa gehitu behar zaio (% 30).

Gaur egun, ikerketari dagokionez,

protusioaren edota diskoko herniaren tratamendua etengabe aldatzen ari da; ezadostasun handia dago teknika bat eta bestea noiz erabili, eta gutxi dakigu eraginkortasunari buruz; horregatik, ikertzeko asko dago. Maila klinikoan, bilakaera ona duten hernia batzuk daude; alabaina, beste batzuen bilakaera ez da nahiko genukeen bezain ona.

Ornoarteko diskoa funtsezkoa da bizkarrezurraren egitura eta funtzionamenduan. Haren biologiari buruz egin diren ikerketek esker, asko ikasi dugu haren hezkuntzaren, sendaketaren, birsortzearen eta konpontzearen inguruan, baita ornoarteko disko barruko eta kanpoko aldaketa zelularrei buruz ere; aldaketa horiek, hain zuzen ere, eragin zuzena dute ornoarteko diskoaren heldutasunean eta osasunean. Horrez gain, egitura horrek estres traumatikoari nola erantzuten dion ere hobeto dakigu; izan ere, badirudi hori dela diskoko zelulaz kanpoko matrizean arazoak sortzen dituen (hala ere, aldaketen larritasuna eta mina agertzea ez dira beti lotuta joaten). Ezagutza horri esker, hobeto uler dezakegu haren funtzioaren konplexutasuna: indarrak transmititzea eta kargak banatzea. Hala ere, bizkarrezurrari eragiten dioten faktore mekanikoek, hala nola adinak, genetikak, faktore elektrozinetikoak eta nutriente nahiz produktu metabolikoen garraioak, oraindik ere zaildu egiten dute elkar-eragin horiek aztertu eta ulertzea.

Ornoarteko diskoa orno-egituren artean dago eta ornoak elkarri lotzen ditu, "orno-unitate funtzional" bat sortzeko; horrek barne hartzen du goiko ornoaren beheko aldea, beheko ornoaren goiko aldea, ornoarteko diskoa eta hura osatzen duten gainerako ehun bigunak (lotailuak, kapsula, giharrak). Ornoarteko diskoak sei mugikortasun gradu eskaintzen dizkio "segmentu mugikorrari"; horrek kargak moteltzeko balio du. Fisiologikoki, diskoak indarrak eta deformazioak jasaten ditu, borondatezko mugimenduen arabera, eta betiere bizkarrezurraren anatomia osatzen duten egiturek jarritako mugen barruan. Gainera, zenbait zailtasun egon daitezke, bizkarrezurra errotazio mugimendu gainjarriak (bizkarrezurra egonkortzen dituzten indarrak), presio intra-abdominala eta kanpoko



perturbazioak jasaten dituelako. Elementu guzti horiek zaildu egiten dute ornoarteko diskoaren karga-eremua; ondorioz, diskoko benetako karga-baldintzak birsortzea oso zaila da.

Ornoarteko diskoak hainbat atal ditu: nukleo mamitsua, erdialdean; zuntz finez egindako sare bigun eta garden bat du eta, bertan, gela aurki daiteke (konplexu proteiko-polisakarido batek osatutako funtsezko substantzia). Ausaz antolatutako kolageno zuntzak eta elastinazko zuntzak ditu, baita agrekanoa ere. Osaera eta itxura adinaren arabera aldatzen da; gero eta zurrunagoa bihurtzen da.

Zuntzezko uztai xafladun erresistentea (hidratazio gutxiago du); 15-25 uztai edo xafla zentrokidez osatuta dago, eta kolagenozko zuntzak paraleloan jarrita daude xafla bakoitzaren barruan. Zuntzek 60°-ko angelua dute ardatz bertikalarekiko, eta ezker-eskuin tartekatzen dira ondoz ondoko xaflatxoetan. Elastinazko zuntzak xaflatxoaren artean daude, eta badirudi diskoari jatorrizko posizioa itzultzen laguntzen diotela mugimendu bat egin ondoren. Uztaiaren egitura-osagaietan aldaera bat dago: barnealdeko xaflatxoetan II. motako kolagenoa eta fibrokondrozitoak aurki daitezke, batez ere; kanpokoak, berriz, I. motako kolagenoz eginda daude gehienbat, eta fibroblastoak daude bertan.

Morfologikoki desberdina den hirurgarren atala, plaka terminala edo kartilagozko orno-platertxoak da: xafla horizontal mehea da, 1 mm lodira heltzen ez dena, kartilago hialinoz egina. Haren osaera zuntzezko uztaiaren osaeraren antzekoa da, baina ur gutxiagorekin eta zuntz gehiagorekin.



Disko normal batek hauen eragina jasaten du: faktore genetikoak (loturak hauteman dira diskoen endekapenaren eta zenbait generen polimorfismoen artean, hala nola agrekanoa, IX. kolagenoa eta D bitaminaren errezeptoreak; denbora joan ahala, horrek gerrialdean mina agertzea eragiten du, eta hori izan daiteke era horretako patologien % 30en jatorria) eta giroko faktoreak (faktore psikologikoak, gizarte-faktoreak, obesitatea, sedentarismoa, ergonomia txarra). Horrek aldaketa biomekaniko eta biokimikoak eragiten ditu, eta ondorioz diskoa endekatu egiten da, zuntzezko uztaian pitzadurak agertzen baitira eta hantura-erantzuna baitago.


### Aldaketa biomekaniko eta biokimikoak

Aldaketa biomekanikoen eta biokimikoen arteko oreka garrantzitsua da ehunaren testura osasuntsu mantentzeko eta ehunaren zelulaz kanpoko matrizean zelulen igarotzea normala izan dadin.


Nukleoa eta zuntzezko uztaia antzekoak dira; biek dituzte ura, kolagenoa eta proteoglikanoa (PG), baina horien kontzentrazioak desberdinak dira. Diskoaren osagai nagusia ura da, ehunaren bolumenaren % 65-90 hartzen du; dena den, ehuneko hori aldatu egiten da adinaren eta diskoaren zonaren arabera. Zahartu ahala, aldaketa hauek gertatzen dira diskoan:

1. Motako kolageno gehiago nukleo mamitsuan: nukleo mamitsuko II. motako kolagenoaren konposizioa aldatu egiten da, eta I. eta III. motako bihurtzen da (endekatze handia dagoenean, X. motakoa). Diskoan, kolageno zuntzen antolaketak espezializazio handia du. Uztaian baino finagoak dira, sareta irregular forma dute; uztaian, berriz, kolagenoa xafla zentrokideetan antolatzen da. Diskoko kolageno-sarearen antolaketak eragin handia du kargaren banaketan.
2. Nukleo mamitsuko proteoglikanoak murriztea: Ornoarteko diskoaren PGek presio osmotiko altua eta iragazkortasun hidrauliko baxua

ematen diote matrizeari; ondorioz, diskoaren konpresio-kargak jasateaz arduratzen da. Presio-balio baxuek areagotu egiten dute PG kopurua; diskoiko presio-balio altuek, berriz, metalorpotenasiaren ekoizpena areagotzen dute, eta horiek katabolizatu egiten dituzte molekulak, ornoarteko diskoa endekatu eta PGen sorrera ekidinez. PG galtzen denean, glikosaminoglikanoak ere galtzen dira, eta horrek presio osmotikoa eta ura galtzea eragiten du, baita diskoak altuera galtzea ere; hori dela eta, funtzio mekanikoa konprometitu gelditzen da, bizkarrezurraren inguruko egituretan (giharrak, lotailuak, giltzadura fazterioen kapsulak eta egitura oseok) kargen transmisioa aldatu egiten delako, denak ala denak inertziazio handiarekin..



**normal disc**



**degenerated disc**

3. Uztaiko elastinazko zuntzak murriztea: uztaileko zelulek konpresio-indarren eragin txikiagoa jasaten dute. Elastina funtsezkoa da zelulen eta zelulaz kanpoko matrizearen arteko elkar-eraginerako. Ornoarteko diskoa gai da birmoldatzeko; horrek barne hartzen ditu endekapena eta osagai berrien sintesia. Sintesiaren, endekatzearen eta matrizeko makromolekulak metatzearen arteko oreka mantentzea funtsezkoa da haren kalitatea eta osotasuna babesteko; ondorioz, baita diskoaren beraren

portaera mekanikoa babesteko ere. Proteolisia inhibizioa baino handiagoa denean, zelulaz kanpoko matrizean gorabeherak eta apoptosia agertzen dira; kontrako kasuan, fibrosi tisularra edo orbaina agertzen da..


4. Kolageno-proteoglikanoaren kohesioa areagotzea: Zahartzearen eraginez, uztaian eta nukleoaren arteko muga lausotu egiten da, eta nukleoa fibroptikoago egoten da, antolaera txarragoarekin eta gel gutxiagorekin; ondorioz, elementu hidrostatikoa gisa funtzionatzeko gaitasuna galtzen du. Uztaia ere irregularrago dago, eta elastina eta kolageno sareak ez daude hain ondo antolatuta. Laburbilduz, adinean gora egitean, gero eta intzidentzia handiagoa dute endekatze-aldaketek; horrek barne hartzen

du kondrozitoen eta beste zelula batzuk hiltzea (eta beste batzuk ugaritzea), mukosaren endekatzea, aldaketa granularra eta uztaian pitzadurak agertzea. Zaila da zahartzeak eragindako aldaketak eta aldaketa "patologikoak" bereiztea.

5. EBizkarrezurra ez erabiltzeak beste egitura batzuk (lotailu horia, muin artekoa etab.) endekatzea dakar, baita bizkarrezurraren mugimenduak mugatzea ere. Mina kronikoa denean, multifidoa eta bizkarrezurra egonkortzeko garrantzitsuak diren beste gihar batzuk txikitzen eta inhibitu egiten

dira. Klinikan maila eta abiadura aldaketak agertuko dira.

6. Gerrialdeko minak bizkarreko giharretara doazen bulkaden antolaketa kortikalaren galera ere badakar. Giharren kontrol motorean errepresentazio kortikalak gora egiten badu, gune horretako giharren aktibazio diferentziala galduko da; ondorioz, pertsona horrek postura-egokitzapen gehiago beharko ditu eta horrek desoreka bat eragingo du; horrek diskopatia bat ekarriko du.
  7. Lanean behin eta berriz etengabeko kolpeak edo dardara mekanikoak jasatea.
  8. Denbora luzez postura jakinean egoteak diskoa kaltetu dezake. Bizkarrezurreko giharrak denbora luzez uzurtuta izanez gero, diskoaren nutrizioa murriztu daiteke, giharrek eragindako konpresioaren eraginez jasaten duen presioak gora egingo duelako. Presio horrek % 40 egin dezake gora bi oinen gainean denbora luzez egotean, eta % 200 arte eserita eta 40°-ko angeluan aurrerantz okertuta egotean; ondorioz, posizioak denbora luzez mantentzeak diskoak lesioak agertzeko aukerak areagotzen ditu. Errotazioek ere presioa handitzen dute. Lo egitean presioa murriztu egiten da. Egunean zehar likidoaren % 25 arte galtzen da, eta hori gaez berreskuratzen da. Horrek azaltzen du zergatik desagertzen diren atseden hartzean (etzanda) diskoarekin erlazioaturiko sintomak eta zergatik gauden zurrunago goizetan, hidrodinamikari dagokionez.
- Ornoarteko diskoaren gaineko karga areagotzen bada, ornoarteko diskoak gorputzaren pisuaren eta giharren tentsioaren eragin konbinatuaren inpaktua jasango du; ondorioz, likidoa askatuko du oreka berreskuratu arte. Horrek PG kontzentrazioa handitzea dakar, eta, ondorioz, baita presio osmotikoa ere. Hala ere, kolagenozko sarearen tentsioa murriztu egiten da. Karga denbora luzez mantentzen bada, likidoa askatzen jarraituko du,



hedatzearen presioa aplikatutako presioarekin parekatzen den arte. Eta kontrara, karga murrizten denean, ornoarteko diskoa hedatu egingo da. Kolageno sarearen nukleoa ahulagoa denez, fenomeno honek gehiago eragiten dio; horrek azaltzen ditu lesioak. PG kontzentrazioa da matrizearen egituraren porositatea zehazten duena; disko ur kantitatea aldatzen bada, kontzentrazio hori ere aldatuko da eta, ondorioz, baita porositatea ere. Hala, ehun gehiago badago, PG kontzentrazioa txikiagoa izango da eta iragazkortasuna handiagoa, eta alderantziz.

9. Baskularizazioa: disko gazteetan, zuntzeko uztaiak odol-hodiak dituzte eta odol-kanal handiak daude orno-platertxoaren muinean; horiek desagertu egiten dira pertsona hazi ahala. Heldu osasuntsuetan, ornoarteko diskoak baskularizazio txikia eta inerbazioa du; hori galdu egiten da, gorputzeko egitura abaskularrik handiena bihurtzen den arte; ondorioz, ez da odolik heltzen diskoaren barruko aldera. Behar dituen nutrienteak difusio bidez lortzen ditu, matrizean zehar, zuntzeko uztaiaren eta orno-platertxoaren kanpoaldearekin kontaktuan dauden odol-hodieiei esker; fenomeno horri inbibizio deritzogu. Mugimenduaren bidez, osmosia-difusioa errazten dugu, eta diskoaren nutrizioa hobetzen. Bi mekanismoren eraginez alda dezake kargak ornoarteko diskoaren altuera

eta, ondorioz, diskoaren nutrizioa.

